DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

# Oroimen Historikoaren Kontseilu Sektoriala
## Consejo Sectorial de Memoria Histórica

| | |
|---|---|
| **Deialdia egin duena**<br>Convoca | **Donostiako Udala**<br>Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián |
| **Data, tokia eta ordua**<br>Fecha, lugar y hora | **2018ko urriaren 10** / 10 de octubre de 2018<br>**Udaletxeko Pleno aretoa /** Salón de Plenos del Ayuntamiento<br>**18:00etan** / A las 18:00 horas |
| **Amaiera ordua**<br>Hora de finalización | **19:25an /** A las 19:25 horas |

## GAI-ZERRRENDA:
## ORDEN DEL DÍA:

1.- Aurreko saioko akta onartzea.

2.- Kontseiluei buruzko ebaluazioaren aurkezpena Partaidetza arlotik.

3.- Oroimen Historikoaren inguruko aktibitateak.

4.- Holokaustoaren biktimen nazioarteko egunaren aitormena.

5.- Donostiarrak Erorien Haranean.

6.- Lan taldearen berraktibatzea.

1.- Aprobación del acta anterior.

2.- Presentación de la evaluación de los Consejos desde Participación Ciudadana.

3.- Actividades en torno a la Memoria Histórica.

4.- Conmemoración del Día Internacional de las víctimas del Holocausto.

5.- Donostiarras en el Valle de los Caídos.

6.- Re-activación del grupo de trabajo.

7.- Ruegos y preguntas.

| | |
|---|---|
| 7.- Bestelakoak, eskariak eta galderak. | |

**BILERAN PARTE HARTU DUTE:**
HAN ASISTIDO A LA SESIÓN:

| | | |
|---|---|---|
| **KONTSEILUKO LEHENDAKARITZA**<br>PRESIDENCIA DEL CONSEJO | Eneko Goia | |
| **GIZA ESKUBIDEETAKO ZINEGOTZI ESKUORDEDUNA**<br>CONCEJAL DELEGADO DE DERECHOS HUMANOS | Juan Ramón Viles | |
| **TALDE POLITIKOEN ORDEZKARIAK**<br>REPRESENTANTES GRUPOS POLÍTICOS | **1. EH BILDU**<br>**2. PSE-EE**<br>**3. IRABAZI** | 1. Aitor Ibero<br>2. Alfonso Gurpegui<br>3. Amaia Martín |
| **KONTSEILUKO BOKALAK**<br>VOCALES DEL CONSEJO | **1. Miguel Aranburu historialarien elkartea**<br>**2. Altunaberri Kultur elkartea**<br>**3. EDE Fundazioa**<br>**4. Genozidioaren biktimen elkartea**<br>**5. Lantxabe asoc. De vecinos**<br>**6. 1.Herritar norbanakoa / Representante ciudadano nº 1**<br>**7. 2.Herritar norbanakoa / Representante ciudadano nº 2** | 1. Mikel Zabaleta<br>2. Iñaki Zuloaga<br>3. Maider Martiarena<br>4. Xabier Apaolaza<br>5. Félix Pérez Carrasco<br>6. Felix Soto<br>7. José Zato |
| **ETORRI EZ DIRELAKO DESENKUSATU DIRA**<br>EXCUSARON SU ASISTENCIA | **Hamaika Bide elkartea**<br>**Aranzadi**<br>**LAB udal sail sindikala**<br>**Goldatu elkartea**<br>**Euskal Memoria Fundazioa**<br>**Valentin de Foronda Institutoa**<br>**Ospe bereziko pertsona/ Persona de especial relevancia n.º1**<br>**Ospe bereziko pertsona/ Persona de especial relevancia nº2**<br>**Ospe bereziko pertsona/ Persona de especial relevancia nº3** | José Ramón Zabala<br>Javier Buces<br>Juan José Altuna<br>Felipe Izagirre<br>Karmele Urbistondo<br>José M. Ortiz de Orruño<br>J. Ramón Rodríguez Ranz<br>Luis Castells<br>Gotzon Garmendia |

| | | |
|---|---|---|
| **UDAL TEKNIKARIAK**<br>PERSONAL TÉCNICO MUNICIPAL | **Kontseiluaren Idazkaritza. Giza Eskubideen teknikaria**<br>Secretaría del Consejo. Técnica de Derechos Humanos | Arantza Zabala |
| | **Hezkuntzaren eta Gizarte Sustapenaren zerbitzu burua**<br>Jefe del Servicio de Educación y Promoción Social | Imanol Telleria |
| **PARTAIDETZAREN DATUAK**<br>DATOS DE PARTICIPACIÓN | **8 OHKSeko pertsona kideak jarraian adierazten direnez gain: Herritarren Partaidetzako teknikariak, Hezkuntzaren eta Gizarte Sustapenaren zerbitzuburua eta Kontseiluko idazkaria.**<br><br>**Emakumezkoak** / Mujeres = **3**<br>**Gizonezkoak** / Hombres = **11** | |

| | |
|---|---|
| | 8 personas integrantes del CSMH, además del Jefe del Servicio de Educación y Promoción Social, Técnicos de Participación Ciudadana y la secretaría del Consejo. |

**Saioaren bilakaera**

Desarrollo de la sesión:

BILERA BURUAK bilera hasitzat jo ondoren, honako GAI ZERRENDA honi ekin diote:

**1.- Aurreko saioko akta onartzea.**

Aho batez onartu dute.

**2.- Kontseiluei buruzko ebaluazioaren aurkezpena Partaidetza arlotik.**

Donostiako kontseilu sektorialen ebaluazioak emandako emaitzak azaldu ditu Herritarren Partaidetzako teknikari Iñaki Otamendik, eta Oroimen Historikoaren Kontseilurako ere proposatu ditu hobekuntza batzuk.

**3.- Oroimen Historikoaren inguruko aktibitateak.**

Giza Eskubideen alorreko zuzendari Imanol Telleriak iaz egindako ibilbide antzeztuek zenbateko eskaera izan zuten gogorarazi du. Hala, aurten iaz halako bi saio egin dira (10, denera), iraileko zapatuetako goizetan eta arratsaldeetan. Guztira, 231 pertsonak parte hartu du: 154k gaztelaniaz eta 77k euskaraz. Adierazi du oraindik ere badagoela eskaera eta, beraz, iaz ere segituko dutela egiten.

Beste alde batetik, Araba Sarearen erakusketa ikusten 558 pertsona izan dira, eta 95ek hartu dute parte hitzaldietan.

Azkenik, esan du Aranzadiren ordezkariak ez duela bilerara etortzerik izan gaur eta hurrengo osoko bileran adieraziko dutela Memoriaren Bulegoaren egoera.

Declarada abierta la sesión por la PRESIDENCIA, se pasa a desarrollar el siguiente ORDEN DEL DÍA:

**1.- Aprobar el acta de la sesión anterior.**

Se aprueba por unanimidad.

**2.- Presentación de la evaluación de los Consejos desde Participación Ciudadana.**

Iñaki Otamendi, Técnico de Participación Ciudadana presenta los resultados de la evaluación de los Consejos sectoriales de San Sebastián y propone implementar algunas mejoras en el Consejo de Memoria Histórica.

**3.- Actividades en torno a la Memoria Histórica.**

El director del área de Derechos Humanos, Imanol Telleria recuerda la demanda del año pasado en los recorridos teatralizados. Así, este año se han duplicado las sesiones, con un total de 10, los sabados de setiembre, por la mañana y por la tarde: han participado un total de 231 personas, 154 en castellano y 77 en euskera. Señala que la demanda continua por lo que se seguirá con la actividad el año que viene.

Por otro lado, a la exposición “Red Alava” han acudido ha verla 558 personas y 95 personas participaron en las conferencias.

Por último, informa que el representante de Aranzadi no ha podido asistir a la sesión de hoy por lo que se conocerá la situación de la Oficina de la Memoria en el siguiente pleno.

**4.- Holokaustoaren biktimen nazioarteko egunaren aitormena.**

Kontseiluburu Eneko Goiak azaldu du hiriko toki bat Holokausto Naziaren biktimak aitortzeko jartzea hitz eman zuela udal gobernuak eta bi toki dabiltzala esku artean Giza Eskubideen Batzordeak horretarako: Oroimenaren Lorategia eta Aieteko parkea, Anna Franken oroitarria. Ekarpenak egiteko eskatu du.

Aiete-Lantxabe elkartearen ordezkari Felix Perezek uste du Aieteko parkea izango litzatekeela egokiena, hartara auzo guztiak sartuko liratekeela memoriaren ibilbidean eta.

EDE Fundazioaren ordezkari Maider Martiarenak esan du bi tokiak ere egokiak direla, eta ikasleekin ekintza batzuk egitea proposatu du, Bigarren Mundu Gerran gertatutakoa ezagutarazteko (kontzentrazio eremuak, Comet sarea…).

**4.- Conmemoración del Día Internacional de las víctimas del Holocausto.**

El presidente, Eneko Goia explica que el gobierno municipal se comprometió a destinar un espacio en la ciudad para el reconocimiento a las víctimas del Holocausto Nazi y que la Comisión de Derechos Humanos baraja dos espacios: el Jardín de la memoria y el memorial de Anna Frank en el parque de Aiete. Solicita aportaciones.

La persona representante de la asociación Aiete-Lantxabe, Félix Pérez cree que para que todos los barrios entren en el recorrido de la memoria sería preferible destinarlo al Parque de Aiete.

La representante de EDE Fundazioa, Maider Martiarena afirma que los dos espacios son adecuados y propone llevar a cabo con el alumnado otras actividades para dar a conocer lo ocurrido en la Segunda Guerra Mundial (campos de concentración, Red Comet…).

**5.- Donostiarrak Erorien Haranean.**

Udalbatzak onartutako mozioaren berri eman du Kontseiluburu Eneko Goiak: han diren donostiarren zerrenda eskatzea Barne Ministerioari. Giza Eskubideetako zinegotzi eskuorde Juan Ramon Vilesek adierazi du kontua ez dela materiala bakarrik —gorpuzkinek duten egoerak oraindik eta gehiago zailtzen duten arren—, juridikoa ere badela, familiak berariaz eman behar baitu gorpuzkinak mugitzeko baimena. Puntu hori Aranzadiri galdetzea eta kontseiluak hurrena izaten duen osoko bileran azaltzea erabaki dute.

**5.- Donostiarras en el Valle de los Caídos.**

El Presidente, Eneko Goya da a conocer la moción aprobada por el pleno del Ayuntamiento para solicitar al Ministerio de Interior los listados de los y las donostiarras que se encuentran allí. El concejal delegado de Derechos Humanos, Juan Ramón Viles añade que no es un tema sólo material, complicado por el estado en el que se encuentran los restos, si no también jurídico, ya que se necesita el permiso expreso de la familia para mover los restos. Se decide consultar con Aranzadi este punto y el próximo pleno del Consejo.

**6.- Lan taldearen berraktibatzea.**

Lehendakariorde Xabier Apaolazak,

**6.- Reactivación del grupo de trabajo.**

El vicepresidente, Xabier Apaolaza

gaiari berriz ere heldu eta gehiago ez atzeratzea proposatu du. Hala, bada, lan taldean parte hartu nahi dutenek hala berresteko eskatu dute. Altunaberri, Aiete-Lantxabe eta EDE Fundazioaren ordezkariek berretsi egin dute parte hartuko dutela. Hala, taldea eratzeko prozesua nola geratu zen eta taldeak zer helburu dituen azaldu dute. Azkenean, Miguel Aranbururen ordezkari berria ere, Mikel Zabaleta, sartu egin da taldean.

retoma el tema y propone no demorar más el asunto por lo que solicita confirmación de quienes quieran formar parte del grupo de trabajo. Las personas representantes de Altunaberri, Aiete-Lantxabe y EDE Fundazioa confirman su participación. Se explica como quedó el proceso de constitución y objetivos del grupo de trabajo. Mikel Zabaleta, el nuevo representante de Miguel Aranburu, finalmente se adhiere al grupo de trabajo.

1.go zenbakia duen norbanako partaide Felix Sotok gogorarazi du lehen egindako proposamenen batzuk ere badirela hor: Francoren ministro izan zen Federico Silvari hiriaren domina kentzea eta Easoko plazari Erresistentzia Antifaxistaren plaza jartzea, konparazio baterako. Kontseiluburu Eneko Goiak erantzun dio hiriaren domina kentzeko proposamena Udalbatzari bidali zaiola eta hasita daudela hori ebazteko araudia aldatzen. Besteaz, gogorarazi du plazarentzat proposatutako izena kaleen ponentziara  bidali zela eta ez zela aurrera atera.

El representante ciudadano nº1, Félix Soto, recuerda que entre las propuestas se encuentran la retirada del distintivo de la ciudad al ministro de Franco, Federico Silva y la denominación, Plaza de la resistencia antifascista en Easo. El presidente, Eneko Goia, responde que la propuesta de retirar el distintivo de la ciudad ha sido elevada a pleno y la modificación de la normativa para su resolución está en curso. Recuerda que la denominación de la plaza propuesta se transfirió a la ponencia de calles y no prosperó.

## 7.- Eskariak eta galderak.

Irabazi taldearen ordezkari Amaia Martinek zera bidaltzeko eskatu du: kontseiluaren ebaluazioaren gaineko txostena, jardueren oroitidazkiak eta osoko bileran aztertu behar diren gaien gaineko informazioa.

Altunaberri elkartearen ordezkari Iñaki Zuloagak iragarri du erakunde adierazpen bat egiteko eskatuko dietela talde politikoei, zeraren gainean: Francoren diktaduran masoneriaren kontra egindako jazarpena gaitzestea eta haien ohoragarritasuna aitortzea. Bartzelonan eta Sevillan ere hala egin dutela.

2. zenbakia duen norbanako partaide Jose Zatok Txaldatxurrren gaineko informazioa eskatu du. Giza Eskubideetako zinegotzi eskuorde Juan Ramon Vilesek azaldu du ez dutela aurrera egin toki hura ikusteko moduan jarri eta hara joaten diren pertsonek han zer gertatu zen jakiteko bidea izateko proposamenarekin.

## 7.- Ruegos y preguntas.

Amaia Martín, representante de Irabazi, solicita el informe de evaluación del Consejo, las memorias de las actividades, así como el envío de cualquier información del orden del día que se vaya a tratar en el pleno.

Iñaki Zuloaga, representante de Altunaberri anuncia que van a solicitar una declaración institucional a los grupos políticos en repulsa a la persecución llevada a cabo en la dictadura franquista contra la masonería y en reconocimiento a su honorabilidad, como se ha hecho en Barcelona y Sevilla.

El representante ciudadano nº2, José Zato, pide información sobre Txaldatxur. El concejal delegado de Derechos Humanos, Juan Ramón Viles explica que no se ha avanzado en la propuesta de visibilizar el lugar para que las personas visitantes tengan una idea de lo ocurrido allí.

Hala, beste aztergairik ez denez, 18:45ean bukatutzat jo dute bilera.

No habiendo más temas que tratar, se da por finalizada la reunión a las 18:45h.

Aktaren egilea: Kontseiluko idazkariak Arantza Zabala.

Recoge el acta: Arantza Zabala la secretaria del Consejo.